



HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

2023ko otsailaren 1eko bilkura

Bi mila eta hogeita hirugarren urtean, otsailaren lehenean, zazpiak eta erditan, herri honetako Herriko Kontseilua, erregulatasunez deitua izanik, legeak manatzan duen kopuruan bildu zen, Herriko etxeko gelan, Jean-Marc OÇAFRAIN Auzapezaren lehendakaritzapean

Hor zirenak : CASIRIAIN Elena, CHAMALBIDE Corinne, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, HEGUY Antton, IDIART Claudine, INARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie

Barkatuak zirenak : AYÇAGUER Elorri, GOICOECHEA Iñaki
Bilkurako idazkari izendatua izan da : CHAMALBIDE Corinne

Deialdiaren eguna : 2023ko urtarrilaren 26a
Afitxatze eguna : 2023ko urtarrilaren 26a

2. ERABAKIA: 2023ko ESKOLARATZE FORFAITATIK %30eko AURRERAKIN BATEN EMATEA SAINT MICHEL ESKOLA PRIBATUARI: 7.5 nomenklatura

Auzapezak Herri Biltzarrari oroitarazi dio, Frantziako Hezkuntza Kodeko L.442-5 artikularen arabera, Ortzaize - Arrosa Herri-arteke Pedagogia Elkartearen (HPE/RPI) lurraldean diren kontratupeko ikasgelen funtzionamendu gastuak irakaskuntza publikoko eta maila bereko ikasgelen baldintza beretan kontuan hartzen direla.

Auzapezak herri biltzarkideei jakinarazi die, Saint Michel eskola pribatuak 2023ko eskolaratze forfaitaren %30eko aurrerakina ematea eskatu duela.

Aurrerakinaren kalkulatzeko, 2023 eskolaratze forfaitaren aurreikuspena hartuko da kontuan, hots 2022koaren parekoa izan daitekeena.

Auzapezak biltzarkideei oroitarazi die zenbatekoak izan diren 2021-2022 ikasturtean Ortzaize eskola publikoaren funtzionamendu gastuak:

- 34 108.24 euro ama-eskolako 29 haurrentzat, hots 1 176,15 euro haur bakoitzeko, Ortzaize eskolan.
- 5 468.55 euro CP-CE1 mailetan diren 13,5 ikaslerentzat, hots 405.08 euro haur bakoitzeko, Ortzaize eskolan.
- 10 560.47 euro CE2 eta CM2 artean diren 30 ikaslerentzat, hots 352.02 euro haur bakoitzeko, Arrosako eskolan

Biltzarkideei jakinarazi die, Saint Michel eskola pribatua 2022ko sartzan 16 ikasle Ortzaizeakoak zirela, eta horien artean 7 ama-eskolan, 4 CP-CE1 mailetan, eta 5 CE2 eta CM2 mailen artean. Horiek horrela, aurrerakina honela kalkula daitekeela zehaztu du:
3 484.04 euroko aurrerakina, honela kalkulatu:

	Préélémentaires	CP-CE1	CE2 au CM2	TOTAL
Forfait 2021-2022	1 176,15	405,08	352,02	
Nombre d'enfants au 01/09/2022	7	4	5	16
TOTAL	8 233,05	1 620,32	1 760,10	
Acompte de 30%	2 469,92	486,10	528,03	3 484,04

Eskola publikoko ikasle baten kostua x Ortzaize eskola pribatuko ikasle kopurua x %30

Herri Biltzarak, Auzapezaren azalpenak entzun eta eztabaidaturik,

- **ERABAKI DU**, aho batez, Saint Michel eskolari 3 484,04 euroko aurrerakina onartzea 2023 urtearentzat,

- **BAIMENA EMAN DIO**, Auzapezari, gai horri buruzko agiri oro izenpetzeko eta behar diren izapideen egiteko.

Kide kopurua : 15
Hor zirenen kopurua : 13
Balizko boz kopurua : 13
ALDE : 13
KONTRA : 0
ABSTENTZIO : 0

Hala erabakia, gaineko egun, hilabete eta urtean. Bertaratu diren kideek sinatu dute erregistroan. Araberatasunez ziurtatu erabakia.

ORTZAIZEn, 2023ko otsailaren 10ean
Auzapezaren axuanta,
Jean-Claude IRIART

Betegarria bilakatu den akta,
2023/02/10ean publikatu edo notifikatu ondoan,
Eta Prefeturan pausatu ondoan 2023/02/10ean.